

la herri osoa elkartu da sozidadearen eta kultur etxearen urteurren festan



Joan den irailaren 29an, herri festa ederra izan genuen Zerainen Liztormendi elkartearen 50. urtemuga eta Oa kultur elkartearen 25. urtemuga ospatzeko. Goizean herritarrentzat bola txapelketa egin zen. Kantu-poteoak bazkari handiari eman zion pasoa. Arratsaldean bertso saioa egin zen, eta festak bertsolari eta trikitilariekin jarraitu zuen berandu xamar arte. Zeraingo herriak egun ederra pasa zuen elkarrekin, sozidadeak eta kultur etxeak urteak bete dituztela ospatzeko!



Giro ederrean eta ekintzez beteta joan da kultur astea

Urriaren 20tik 27ra bitartean egin da aurtengo kultur astea. Urriaren 20an, larunbata, Basazabala bisita egin zen gaztandegia ikusi eta gazta dastatuz (giro txarra tarteko, ez ziren ibiltariak Oosoko txaboletaraino joan) eta arratsaldean eskola txikiei buruzko bideo-emanaldia egin zen. Biharamunean, urriaren 21ean, jubilatuen eguna ospatu zen meza eta bazkariarekin, Agirre eta Etxeberría bertsolariak lagunduta.

Urriaren 22an, "Moroak gure artean" hitzaldia eman zuen Mikel Zalbidetik. Hurrengo egunean, asteartean, "Alejandrino Irureta eta Zeraingo artea" hitzaldia eman zuten Joxemari Telleriak, Josetxo Zufiaurrek eta Edorta Kortadik. Asteazkenean, 30 zeraindarrekin egindako bideo grabazioak eman zituen Hasier Gogortzak. Ostegunean, "Gazta zati bat" doku-



mentala eskaini zen eta ostiralean Anjel Cuerdo abenturazaleak ibaie- tan egindako bidaien berri eman zuen.

Larunbatean, herriko haurren marrazki rallyarekin hasi zen eguna. Babarrun-jana izan zen ondoren.

Arratsaldean Arrabots taldearekin dantzaldia egin zen eta iluntzean III. patata tortila lehiaketa. Kultur astea ekintzez bete-beteta etorri da eta giro ederrean ospatu ondoren joan da. Dena ondo badoa, hurrengo urtean gehiago izango da





Galtzen ari diren hitzak

Makakorro

Labur beharko du gaurkoan. Txistu bizian ari naiz beste zenbait konturekin, eta ahal denean ahal dentxo. Hala dio esaera zaharrak, eta horri heldu beharko diogu gaurkoan.

Makakorro aukeratu da gaurko honetarako. Hitza entzun gabea nuen Donostialdean, umetan eta gaztetan. Buruan gorde gabea, behintzat. Zerainen hasi nintzen, lehenik, zenbait aditzen. Erdi-galduta izan dut ordea, gaurko honetarako aukeratu dugun arte. Goazen beraz hitzarekin, *patrifilio* handiagorik gabe. Esateko modu bat baino gehiago du hitz horrek: *makakorro*, *makakorroe*, *makakarra*, *makakorroi*. Forma aldetik zertxobait bereizten badira erre han-hemenago formak, adiera aldetik ez dago aniztasun handirik. Guztietan ere "rugido, bramido" esan nahi du. Zehazkiago, "rugido del buey azorado", "mugido del ganado vacuno" edo "bramido de vaca". Erdarazko "balido" ere bai: "*makaka-orroe*, dando balidos".

Honela jaso zuen hitza Elexpuruk, Bergara aldean: "Zulora jausi zanian, zuen beixak etaratzzen jittuan *makakorroiak*". Era metaforikoan sarri erabili izan da hitza, ganaduaren orroa pertsonetara zabalduz. Auspoa bertso-bildumatik jaso da, adibidez, honako ahapaldi hau: Jantzi kaskoz eta larruz, / motorretan *makakorruz*. 1931ko olerki batean emana da, bestetik, hurrengo esaldia: Inpernu dana *makakorroz* / asi dedilla bat-batetan.

Antzera ageri da hitz lau ere: "au pusillakin eta ura pistolakin, danak *makakorruka* azaldu ziran". Beste hau ere bai: "Gure artean bazkal-orfeoiketak izan oi diranez: *makakorroka* baitipat, noski". MEIG IV 112.

Erabilera jaso, formalagorik ere izan du hitzak, inoiz, Mitxelenaren luma dotorean. Hona bi esaldi: batean "hizketan ez ezik, soinua jotzen ere ikasi zuen. Are gehiago, marraka, marrua, kurrinka, orroa, *makakorroa*, irrintzi eta arrantza egiten ere bai"; bestean "heldu ginen helburu nagusira [...], nahiz orro eta *makakorroka* maizegi ibili".

Galduz doa hitza, eta guztiok dakigu zergatik. Nork du orain, zeraingar zahar eta gazteon artean, etxeko (edo etxe ondoko) ukuiluan ganadurik? Nor bizi da ganadutik, Zerain osoan? Zenbatek gobernatzen duzue ganadua, zenbatek egiten dizkiezue etxeko abelgorriei azpiak, zenbatek ume egiten laguntzen diezue? Hori guztia gabe, nola entzungo dugu makakorrerik? Hori da historia, oraingoan labur baino laburragoa. Ehunka edo milaka urtean izandako bizimodua, abeltzain-nekazariena, erro-errotik aldatu da (aldatu dugu) azken berrogeita hamar urtean. Gure aitona-amonentzat (eta, neurri mugatuagoan, gure gurasoentzat) gauza ezaguna zen ganadua etxean gobernatzea. Ezaguna zen, orobat, mendira atera eta gurdi-bidetan itzainak beren idi-parearekin ikustea. Hori guztia galdu egin da,

ixtant batean, eta nekez itzuliko da berriro. Gure ume-garaiko oroitzapen erdi-galduen artean gorderik daude, onenean ere, orduko behi-sailak, idi-demak eta ukuilu kontuak. Aldatu egin da bizimodua, aldatu egin dira gure ingurumeneko bizidunak eta, horien artean, desagertu egin dira etxeko abereak. Haiek desagertzearekin, jakina, haien makakorroak ere galdu egin dira zeharo.

Bizirik jarrai dezake, nola ez hitzak. Ikusi dugu Mitxelenak zein dotore erabili izan duen inoiz. Arazo bi ditugu, ordea horretarako. Batetik, hitza buruan duten eta egoki erabiltzen dakiten euskaldun gazteak behar ditugu, eta bestetik entzundako hori ondo interpretatzen jakingo duten entzule gazteak eta zaharrak. Batzuek eta besteak ez zaizkigu tropelean ugaritzen ari. Uste izatekoa da, beraz, beste hainbat hitz zaharren paradero berbera izango duela *makakorroak* ere: hiztegiatxo txokoa eta filologoen ikerketa-esparrua. Historia ez dago aurrez idatzia, ordea, eta gazte-jendeak ziria sartzeko, hizkera gatz-piperduna lantzeko oso aukerakoa izan dezake hitza: "A zer *makakorroa* atera zuen Joan Anderrek atzo, taberna-zuloan". Gazteen esku dago, jakina, hizkuntzari txispa ateratzea. Giroa, okasioa eta komenentzia behar hartarako. Sortuko al da halakorik Goierri honetan? Hala biz.

Mikel Zalbide

Urteroko talo eta gaztina jana azaroaren 10ean egingo da

Basarte Guraso Elkarteko Gurasoak hasi gara kurtsoko lehenengo ekitaldiak antolatzen.

Horietako lehenengoa azaroaren 10ean egingo da: "Talo eta gaztina jana" eta parte hartu nahi duen ororentzako irekia izango da. Arratsaldeko 15:30-tan plazatik irtengo gara gaztainak biltzera eta 18:30-etik aurrera frontoira hurbiltzen denak talo eta gaztaina goxoak jateko



aukera izango du. Animatu eta etorri gurekin batera festan parte hartzera!

Bestalde, urteroko ohiturari jarraituz, azaroaren 30ean txotxongiloak ikustera joango gara Tolosara. Aurten Uruguay-tik datorren talde baten lana izango dugu ikusgai. Taloa edo gaztainak janez, nahiz txotxongiloan ikusiz, seguru azaroan ederki pasako dugula!

Basarte Guraso Elkartea



Xagu-txoko



Babesetik

IRAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 100,5 l.					0	0
Cº altuena	ALTUENA: 32º					21	21,2
Cº baxuena	BAXUENA: 8º					11	8
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	19	0	0	0	0	0	0,5
Cº altuena	19,5	24	23	26	32	32	28
Cº baxuena	13,6	13	16	13	17	16	14
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	18	0	5	3,5	0	0	0
Cº altuena	29	28	21	19,5	21	23	28,4
Cº baxuena	18	17	18	13	11	10	11
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	0	3	2,5	0	0	0	2
Cº altuena	25	19	20	27	29	29,6	30,2
Cº baxuena	16	16,6	14	8	20	14	20,9
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	6	15	5	0	0	19	2
Cº altuena	22,9	20,9	21	21	19,4	17	19
Cº baxuena	15	16	10	10	11	13	12

Iraila epela eta atsegina

Udak luzatu ederra hartu zuen irailean. Hotz handirik gabe, tenperatura epelekin eta uda giroko egun askorekin joan zitzaigun iraila. Baina uztailak eta abuztuak atzean utzitako lehortea arintzeko adina euri bota zuen: guztira 100 litro pasatxo. Baratzeko uztarentzat giro bikainak izan ziren, eta horren adibide dira eskolako haurren baratzean hazitako eguzkilore hauek.



Nola etengabe egokitu eta berritu Zerain herri eredua?



Zein balore ditugu Zerainen? Zer sendotu behar dugu? Nola biziberritu dezakegu gure herri proiektua? Galdera horiek oinarri hartuta, etorkizunera begirako Zeraingo ekintza plana diseinatzeko topaketa egingo da azaroaren 9 arratsaldean eta 10 goizean. Hausnarketarako eta lanerako gunea antolatuko da ostiral arratsaldean 15:30etatik 21etara, eta larunbat goizean 10etatik 14etara.

Proiektu honek fruituak eman ditzan, herritar guztion parte-hartzea ezinbestekoa da. Eta auzolanean kudeatutako gure eredua hobeto ezagutu eta berritzen lagundu nahi baduzu, oso ondo etorria izango zara zu ere, ikerlari, udal-langile, ikasle, aholkulari, antolatzaile, bisitari, garapen arduradun, ekoizle, nekazari, mendizale, gaztazale, kulturazale,... zarena zarela. Hori bai! Ahal dena aurrez udaletxean izena emateko eskatuko zaizu.

Su hermandaderaren batzar orokorra

Azaroaren 18an, igandea, eguerdiko 12etan, Zeraingo su hermandadearen batzar orokorra egingo da udaletxean. Bi urtez behin egiten den bilera honetan, su hermandadearen azken bi urteotako gorabeherak, eta arau nahiz baldintzak errepasatuko dira eta datozen bi urteetarako arduradunak izendatuko dira. Su hermandadeko kide diren etxe guztiei dei egiten zaie batzarrean parte hartzeko. Eta era berean, su hermandadeari buruz gehiago jakin nahi duten edo bertan parte hartu nahi duten herritarrek ere gonbidatzen dira bilerara.

Medikuaren oharra

Herriko medikuak Mutiloako kontsultara joan ohi diren zeraindarrei zera jakinarazi nahi die: aurrerantzean Mutiloako mediku kontsulta ez da orain arteko lekuan egongo, herriko plazako etxebizitza berrien beheko solairuan baizik. Beraz, inor ez dadi-la lekuz deskuidatu.